


BEREZIA Koronabirusa: Atal berezia.

(https://goierri.hitza.es/koronabirusa-atal-berezia/)

Jostunak ere, laguntzeko prest



Goierri (https://goierri.hitza.es/herriak/guztiak/)

Gizartea (https://goierri.hitza.es/gaiak/gizartea/)

Goierriko 93 jostunek talde bat sortu dute eta 1.500 maskara egin dituzte, hainbat mertzeriaren eta udalen laguntzarekin. Udaltzainei, dendariak, boluntarioei, DYArri... oparitu dizkiote.



2020 (https://goierri.hitza.es/2020/04) (https://goierri.hitza.es/2020/04/03) (https://goierri.hitza.es/2020/04/03)

Asier (https://goierri.hitza.es/sinadurak/asier-zalduga/)

Koronabirusak bi gauza utzi ditu garbi: emakumezkoenak bezala jo izan diren lanbideek berebiziko garrantzia dutela eta norberak bere aletoxoa jartzeko badu krisia lehenago gairidituko dugula. Goierriko jostunak ere duten onena ematen ari dira: dagoeneko 1.500 maskara egin dituzte.

Herri ekimen hau martxoaren 14an jarri zuten martxan eta Goierriko osoko 93 herritar musu truk maskarak josteko prest azaldu ziren. Taldean Azaola (6), Beasain (23), Idiazabal (10), Itsasondo (4), Legazpi (1), Legorreta (4), Ordizia (24), Segura (10), Urretxu (1) eta Zumarragako (9) jostunak daude. Erantzuna oso ona izan denez, oraingoz ez dira jostun gehiago behar.

Ekimenak bi helburu ditu: maskara falta asetzera eta Goierriko dendariak materiala erostea. Jostun askok beraien etxeetan zuten materiala erabili egin dituzte maskarak. Ordiziako bizilagun batek oihalko oinarri du eta falta zitzaizkion materiala Ordizia eta Beasaingo mertzeriaren erosi dute. Mertzeriaren batek materiala oinarri die eta beste batek deskontua egin die. Bakoiak ahal duen neurrian lagundu die.

Atzo bertan taldeko koordinatzaileek 1.000 maskara baino gehiago jaso zituzten. 500 DYArri oparituko dizkiote. Gainera, Gurutze Gorria eramango dituzte, garbitu ditzaizten. Ondoren, Ordizia, Itsasondo, Azaola eta Legorretan dauden beharrak asetzen saiatuko dira. Soberakinak badaago, Gurutze Goierriari emango diote. Banaketa egin ondoren, ekimenarekin jarraitzeko beharra dagoen edo eten egin behar den zertutuko dute.

Udaltzain, dendari...

Atzo jaso zituztenez aparte, Seguran 200 maskara egin dituzte eta Idiazabalen 130. Aurretik Ordizian 150 bat banatu zituzten, beharra zutenen artean: herriko udaltzainak, dendariak, boluntarioak...

Une honetan talde autonomo eta koordinatuak dituzten herriak Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Idiazabal, Segura eta Urretxu-Zumarraga dira. Ekimenak Ordizia, Itsasondo, Azaola, Segura eta Legorretako udalen babesa du.

Maskara hauek ez dira %100 eraginkorak, baina argi utzi diete bai DYAn eta baita Gurutze Gorrian ere, ezer ez eramatea baino hobea dela. Gainera berberetara ere, gainera berberetara ere.

Ekimen honen bultzatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete jostun eta laguntzaile guztiei, baina bereziki DYArri eman dizkieten 500 maskarak josi dituzten Beasain, Ordizia, Azaola eta Legorretako jostunei, Ordiziako Ana Mari Fernandez eta Santiaga Barrerosi eta bilketa eta banaketa lana egin duten Itsasondoko lau boluntarioei. Jasotako erantzuna «hunkigarria» izan dela diote.

Goierriko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa zaigu. Egin zaitzez HITZAKide! Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin HITZAKide (https://goierri.hitza.es/hitzakide/izan/)

HEMEN ERE: GOERRIKO HITZA

Grid of article thumbnails with titles like 'Beasaingo Igartza Oleta kalea...', 'Ordiziako udalbatza Enriro-Arariako...', 'Pizoihaiek birziklatzearen alde...', 'Iker Aidasorc txapelidun Se'.

0 Iruzkin Goierriko Hitza Disqus' Privacy Policy Saioa hasi

Gomendatu Tweet Partekatu Berrienetik hasita

Registration form with fields for 'Hasi eztabaldia...', 'HASI SAIOA HONEKIN', and 'EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN'.

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgumera Gehitu Disqus Gehitu Do Not Sell My Data

Map and statistics for 'Koronabirusaren hedapena' in Goierri, showing population (P: 310) and cases (B: 70.012).

Azken 7 egunetako irakurriak



(https://goierri.hitza.es/2020/06/14/positib-erri-bat-egon-da-ordizian/)




(https://goierri.hitza.es/2020/06/15/hauek-iberretan-neskak-batzuz-jazarpena-egin-itela-salatu-du-talde-feministak/)



(https://goierri.hitza.es/2020/06/15/hauek-iberretan-neskak-batzuz-jazarpena-egin-itela-salatu-du-talde-feministak/)

Komunitatea (https://goierri.hitza.es/komunitat)

Guztiak Taldeak Sinadurak



(https://goierri.hitza.es/2020/06/16/zaldibiako-herri-ataria-iza-hainbat-komunitate-edo-gehiago-esperoguen-aurren/)